

## XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA  
OSASUN SAILA

### 2181

*76/2016 DEKRETUA, maiatzaren 17koa, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeke baldintzak ezartzeko dena.*

Europar Batasunak, bere araudian, elikagaiek bete behar dituzten betekizun higieniko eta sanitarioak ezartzen ditu. Betekizun horiek, oro har, erregelamendu hauetan daude jasota: 852/2004 Erregelamendua (EEE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, elikagaigintzako produktuen higieneari buruzkoa; 853/2004 Erregelamendua (EEE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, animalia-jatorriko elikagaietarako higiene-arau espezifikoak ezartzen dituena; 854/2004 Erregelamendua (EEE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, gizakiak jateko diren animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak antolatzeko arau espezifikoak ezartzen dituena; 2074/2005 Erregelamendua, Batzordearena, 2005eko abenduaren 5koa, zenbait produktutan aplikatu beharreko neurriak ezartzen dituena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 853/2004 Erregelamenduan (EE) ezarritakoaren arabera, eta kontrol ofizialak antolatzeko neurriak ezartzen dituena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 854/2004 Erregelamenduaren (EE) eta 882/2004 Erregelamenduaren (EE) arabera. Halaber, Erregelamendu horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 852/2004 Erregelamenduan (EE) xedaturikoan salbuespenak sartzen dira, eta 853/2004/EE eta 854/2004/EE Erregelamenduak aldatzen dira.

Araudi honek planteamendu integratua jasotzen du, elikagaien segurtasuna bermatzeko ekoizpen primarioaren tokitik merkatuan jarri arte, eta ekoizpenerako oinarria diren printzipioak ditu, elikagai guztien higiene-arauen arabera.

Halere, Europako Erkidegoko betekizun horiek nolabaiteko jarraitutasunarekin eta estandarizazio-mailarekin egiten diren jardueri aplikatu behar zaizkie, eta, beraz, araudiak berak jasotzen dituen egoera batzuetan, zuzeneko aplikazio hori egitea ezinezkoa da, eta malgutasunez jokatzeko baimena ematen du. Horretarako, ezarritako betekizunak egokitzea eta/edo aldatzea ahalbidetzen du, bai elikagaien ekoizpen primarioarako bai transformazioarako. Hori gertatzen da, besteak beste, ekoizpen-, transformazio- edo banaketa-faseetan metodo tradizionalak erabiltzen dituzten jardueren eta enpresa txikien kasuan.

Kontuan izan behar da, baita ere, araudiak berak adierazten duen bezala, gaur egun oraindik ez dela bideragarria Arriskuen Analisiaren eta Puntu Kritikoen Kontrolaren (AAPKK) Sistemaren printzipioak, oro har, ekoizpen primarioari aplikatzea. Ondorioz, Higieneko Jardunbide Egokien Gidaliburuak (HJEG) aplikatzea sustatuko da, eta gidaliburu horiek, behar izanez gero, ekoizpen primarioarako higiene-arau espezifikoekin osatu beharko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, jarduera txiki ugari daude, eta, jarduera horietan, ekoizpena, transformazioa eta merkatuzatzea tokikoak dira, eta lehen aipatutako kasuen barruan sartzen dira; beraz, Europako Erkidegoko betekizunak egokitu eta/edo aldatu egin daitezke. Hala ere, orain arte, ez da aztertu kasu horien arautze higieniko-sanitarioa, oro har hartuta; hori da, hain zuzen ere, dekretu honen xedea.

Europako araudiak malgutasunari buruz onartzen dituen aginduei jarraituz, salbuespenak edo exentzioak ematen dira eta betekizunak egokitzen dira, eta, horrez gain, horretarako ahalmena ematen zaie estatu kideei, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera: 852/2004 Erregelamendua (EEE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, elikagaigintzako produktuen higieneari buruzkoa; zehazki, 13. artikuluan, I. eranskina (ekoizpen primarioa) eta II. eranskina (elikagaien enpresen operadoreak, ekoizpen primarioa izan ezik) aldatu eta egokitzeari buruzkoan.

Dekretu honetan planteatutako egokitzea zehatz-mehatz gauzatuko da dekretu hau onetsi ostean egin behar diren produktuei edo produktu-multzoei dagozkien arau teknikoetan.

Kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan bai arautu direla betekizun higieniko-sanitarioen egokitzea eskatzeko moduko ekoizpenak; esaterako, artisau-ekoizpena. Zehazki, jarduera hau Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko 126/2012 Dekretuaren bidez (martxoaren 25eko 43/2014 Dekretuak aldatua) arautu da, eta dekretu horrek, dagoeneko, egokitzeko aukera jasotzen du 7. artikuluan. Artikulu horretan aurreikusten denez, aipatutako dekretuaren babeseko artisau-produktu guztiei edo batzuei dagokienez, elikagaien artisau-lanketa, -ekoizpen eta -eraldaketa bete beharreko higiene- eta osasun-betekizunak egokitu egin daitezke, ekoizpen-motaren arabera, osasun publikoaren arloan indarrean den araudiarekin bat etorriz, eta aplikatu beharreko Europako araudia betetz. Egokitze hori, egiten bada, produktu bakoitzerako egingo den arau teknikoan jaso beharko da.

Dekretu honen xede diren ekoizpenentzako betekizun higieniko-sanitarioak zehaztea, eta, hala badagokio, horiek egokitu ahal izatea, hainbat erakunderen arteko baterako lan koordinatuaren emaitza izan behar da: arlo horretan eskudunak diren Eusko Jaurlaritzako sailak, zuzendaritzak eta zerbitzuak; foru-aldundiak; udalak, eta Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpenean parte hartzen duen eragile sektorialak. Halaber, betekizun higieniko-sanitarioak egokitzeko irizpideetan homogeneotasuna zaintzea garrantzitsua, konplexua eta beharrezkoa da, eta, ondorioz, gutxieneko parametro batzuk ezarri behar dira, homogeneotasuna parametro horietan oinarritu dadin. Horiek dira dekretu honen ardatzak eta funtsa.

Hori dela-eta, kontuan izan behar da arau honen xedea ez dela dekretu hauek aldatzea: 126/2012 Dekretua, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzkoa; eta 422/2013 Dekretua, urriaren 7koa, nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzekoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa. Halere, aldaketa horiek beharrezkoak dira dekretu honetan jasotako xedea lortzeko, eta, horregatik, aipatutako aldaketak azken xedapenetan sartu dira.

Horren ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren eta Osasuneko sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Gobernu Kontseiluak 2016ko maiatzaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da beharrezko gutxieneko baldintzak ezartzea, dekretu honen 2. artikuluan aipatutako nekazaritzako elikagaien ekoizpen-motetan betekizun higieniko-sanitarioak egokitzeko, hala badagokio eta indarrean dagoen araudiak horretarako baimena ematen badu.

## 2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Dekretu hau eremu hauetan aplikatuko da:

1) Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko 126/2012 Dekretuan xedatutakoa betetzen duten ekoizpenetan, elaborazioari, produkzioari eta transformazioari dagokienez.

2) Ezaugarri tradizionalak dituzten elikagaiak lantzen dituzten ekoizpenetan.

3) Betekizun higieniko-sanitarioak egokitzea ahalbidetzen duten Europako Erkidegoko erregelamenduetan jasota dauden baldintzak betetzen dituzten ekoizpenak, baldin eta artikuluko honen 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako ekoizpenen barruan ez badaude.

4) Ustiategi txikietako ekoizpen primarioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 178/2002 Erregelamenduaren (EE) 17. paragrafoaren 3. artikuluan jasotako definizioaren arabera; horren bidez, elikagaien legeriaren gaineko printzipio eta betekizun nagusiak finkatzen dira, Elikagaien Segurtasunerako Europako agintaritza sortzen da, eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak finkatzen dira.

## 3. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko 126/2012 Dekretuaren 3. artikuluan jasotako definizioez gain, beste definizio hauek ezartzen dira:

1.– Ezaugarri tradizionalak dituzten elikagaiak. Modu tradizionalan fabrikatu diren eta ezaugarri hauek dituzten elikagaiak:

a) Historikoki produktu tradizionaltzat onartu dira, edo prozesu tradizionalan erregistratutako erreferentzia teknikoan arabera fabrikatu dira, edo ekoizpen-metodo tradizionalen arabera; edo, bestela,

b) estatuko, eskualdeko, tokiko edo Europar Batasuneko legediak babestuta daude, elikagai tradizional gisa (jatorri-deitura babestua-JDB, adierazpen geografiko babestua-AGB eta berezitasun tradizional bermatua-BTB).

2.– Tokiko edo hurbileko merkaturatzea edo salmenta.

Elikagai hauen salmenta da: nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenetik datozenak, elikagai horien transformazioaren bidez lortutakoak, eta industrialak ez diren establezimenduetan ekoiztutakoak, artisau-produktuak eta tradizionalak barnean direla. Horien merkaturatze-esparruak ez du gaindituko Euskal Autonomia Erkidegoko esparru geografikoa, eta horien gehieneko ekoizpen-bolumena dagokion jarraibide teknikoan zehaztuko da produktu edo produktu-multzo bakoitzarentzat.

Tokiko edo hurbileko merkaturatze edo salmenta hori bi modalitatetan egin daiteke:

a) Zuzeneko salmenta: Arau honetan araututako establezimenduek (nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizleak zein ekoizle-elkarteak izan) edo industrialak ez diren establezimenduek zuzenean azken kontsumitzaileari egiten dioten salmenta da, eta bitartekaririk gabe egiten da.

b) Zirkuitu laburreko salmenta: Txikizkako establezimenduen, nekazaritza-turismoko establezimenduen eta jantoki kolektiboen bidez egiten den salmenta da.

4. artikulua.– Transformazioko eta ekoizpen primarioko establezimenduen betekizun higieniko-sanitarioak egokitze gaitzeko baldintzak.

Dekretu honen 2. artikuluan aurrez ikusitako ekoizpenetan betekizunak egokitu ahal izateko, gutxienez, baldintza hauek bete beharko dira:

- 1) Ekoizpen-mota: dekretu honen 2. artikuluan aipatutakoren bat.
- 2) Merkaturatze-esparrua: Euskal Autonomia Erkidegoa.
- 3) Salmenta-modalitatea: tokiko edo hurbileko salmenta.
- 4) Ekoizpenaren bolumena/neurria: dagokion jarraibide teknikoan produktu edo produktu-mul-tzo bakoitzarentzat zehaztutakoa.

5. artikulua.– Transformazioko eta ekoizpen primarioko establezimenduen betekizun higie-niko-sanitarioak egokitzea.

1.– Higienearen arloan Europako erregelamenduek jasota dituzten xedapenen arabera, egoki-tzea honela aplikatu ahal izango da:

a) Higienearen arloko erregelamenduen eranskinetan ezarritako zenbait betekizuni salbuespe-nak edo exentzioak emanez.

b) Higienearen arloko erregelamenduen eranskinetan ezarritako zenbait betekizun egokitzeko baimena emanez.

c) Jarduera batzuk higienearen arloko erregelamenduen aplikazio-eremutik kenduz. Sektore, jarduera edo, beharrezkoa balitz, produktu-mota bakoitzari dagozkion arau teknikoetan definitu edo zehaztuko dira horiek guztiak.

2.– Ekoizpen primarioari dagokionez, hori arautzen duten xedapen arauemaileak egokituko dira.

Egokitze horrek, hala ere, ez du murriztuko dekretu honek arautzen dituen ekoizpenen berme sanitarioa.

6. artikulua.– Transformazioko eta ekoizpen primarioko establezimenduen betekizun higie-niko-sanitarioak egokitzeko prozedura.

1.– Dekretu honen eraginpeko produktuen ekoizpenean, elaborazioan eta transformazioan bete behar diren betekizun higieniko-sanitarioak berriazko arau teknikoetan jasoko dira, eta arau horiek, gutxienez, eduki hau izango dute:

a) Baimentzeko, erregistratzeko eta kontrol sanitarioarako baldintzak.

b) Kokalekua eta sarbideak.

c) Eraikinen eta lokalen antolaera, diseinua eta neurriak.

d) Lokalen barneko egiturak.

e) Ur-hornidura.

f) Efluentek eta hondakin-urak.

g) Argiztapena.

h) Aireztapena.

i) Ekipoak eta tresnak.

- j) Zerbitzu higienikoak eta aldagelak.
- k) Higiene pertsonala.
- l) Garbiketa eta desinfekzioa.
- m) Izurrien kontrola.
- n) Hondakinak eta azpiproduktuak biltegitatu, maneiatu eta deuseztatzea.
- o) Garraiobideak.
- p) Eragiketen higieena (produktuak eta prozesuak).
- q) Manipulatzailen prestakuntza.
- r) Ontziratzea eta enbalatzea.
- s) Etiketatzeta eta trazabilitatea.
- t) Autokontrol-sistema.

2.– Osasunaren, nekazaritzaren eta elikagaien kalitatearen arloko sail eskudunetako titularrek emandako aginduaren bidez onartuko dira arau horiek. Halere, arau horien aldaketak osasun publikoaren arloko sail eskuduneko titularrak egingo ditu.

3.– Elikagaien artisau-ekoizpenaren kasuan, produktu edo produktu-multzo bakoitzaren bera-riazko arau teknikoetan jasota egongo da aplikatu beharreko betekizun higieniko-sanitarioen atalean aipatutako arauen informazioa. Arau tekniko horiek Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko 126/2012 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

7. artikulua.– Osasun-arloko ekoizpen primarioaren eta transformazio-establezimenduen erregistroko inskripzioa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden nekazaritza- edo elikagai-enpresen titularrek, dekretu honen 2. artikuluan jasotako ekoizpenak egiten badituzte, jarduera-hasieraren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu beharko dute, osasun publikoaren arloko zuzendaritza eskudunari zuzendua. Jakinarazpen horren eredia dekretu honen eranskinean dago jasota.

Aurretiazko jakinarazpena telematikoki aurkeztu ahal izango da <http://www.euskadi.eus> web-orrialdearen bitartez, edo, bestela, aurrez aurre ere aurkeztu ahal izango da, bai osasun publikoaren arloan eskuduna den sailaren bulegoetan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen tokietan, edo lege hori ordeztzen duen arauan jasotakoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat etorriz.

2.– Instalazioetan ekoizpen primarioa eta ekoizpen primario horri lotutako jarduerak soilik egiten dituzten nekazaritza-ustiategiek ez dute aurkeztu beharko aurreko paragrafoan aipatutako jarduera-hasieraren aurretiazko jakinarazpena. Jarduera horien artean daude, besteak beste, biltegitatzea, sailkatzea, poltsaratzea eta etiketatzea.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean dauden datuak erabiliz, nekazaritza-arloko zuzendaritza eskudunak ofizios inskribatuko ditu instalazioetan ekoizpen primarioa eta ekoizpen primario horri lotutako jarduerak soilik egiten dituzten nekazaritza-ustiategiak Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorrean edo Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean, dagokion jardueraren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko uztailaren 3ko 126/2012 Dekretuaren 5. artikulua 1. eta 2. zenbakiak aldatzea.

Honela idatzita geratuko dira Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko uztailaren 3ko 126/2012 Dekretuaren 5. artikulua 1. eta 2. zenbakiak:

"1.– Produktu edo produktu-multzo bakoitzaren elikagaigintzako artisau-ekoizpenerako arau tekniko espezifikoak elikagaien kalitatearen arloko sail eskuduneko titularraren eta osasun-arloko sail eskuduneko titularraren baterako aginduaren bidez onartuko dira, eta, ondoren, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

2.– Arau teknikoak Elikagaien Artisau Ekoizpenaren Euskal Kontseiluak proposatuko ditu, aurreko atalean xedatutakoaren arabera onartzeko. Kontseilu hori dekretu honen 26. artikuluan sortu da."

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Urriaren 7ko 422/2013 Dekretuaren 17. artikulua aldatzea. Dekretu hori nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzekoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa da.

Beste paragrafo bat gehitzen zaio, 4. paragrafoa, Nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko urriaren 7ko 422/2013 Dekretuaren 17. artikuluari. Laugarren paragrafo hori honela idatzita geratuko da:

«4.– Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren eta Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorren arteko interkomunikazioa zabaldu egingo da nekazaritza- eta abeltzaintza-arloko organo eskudunek kudeatzen dituzten erregistroetara, ekoizpen primarioari lotuta dauden eta lehenengoan inskribatuta egon behar duten jardueri dagokienez.»

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– - Garatzeko ahalmena.

Nekazaritzaren eta elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen saileko titularrari eta osasunaren arloan eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaie dekretu hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzaten.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 17an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Osasuneko sailburua,  
JON DARPÓN SIERRA.

2016ko maiatzaren 24a, asteartea

**ANEXO AL DECRETO 76/2016, DE 17 DE MAYO  
ERANSKINA, MAIATZAREN 17KO 76/2016 DEKRETUARENA**

**ELIKADURA-JARDUERA ETA ELIKAGAI ESTABLEZIMENDUEN ERREGISTROA  
REGISTRO DE ESTABLECIMIENTOS Y ACTIVIDADES ALIMENTARIAS**

**ERROLDA - ERREGISTRO zenb. / N.º CENSO - REGISTRO:** -

**Izapide mota / Tipo de trámite:**

- Sanitate-baimen eskabidea** / Solicitud autorización sanitaria
- Aurretiko Jakinarazpena** / Comunicación Previa
- Izenaren edo izen sozialaren aldaketa** / Cambio de Nombre o Razón social
- Helbide sozialaren aldaketa** / Cambio de domicilio social
- Establezimenduaren helbide aldaketa** / Cambio de domicilio del establecimiento
- Jarduera aldaketa** / Cambio de actividad
- Jarduera uztea** / Cese de actividad

**ESTABLEZIMENDUKO TITULARRAREN DATUAK / DATOS DEL TITULAR DEL ESTABLECIMIENTO**

<b>Deiturak eta izena edo izen soziala</b> / Apellidos y nombre o Razón social		<b>I.F.Z. edo I.F.K. / N.I.F ó C.I.F.</b>	
-		-	
<b>Helbide soziala( kalea, etab.) / Domicilio social (calle, etc.)</b>		<b>Udalerría / Municipio</b>	
-		-	
<b>Herría / Localidad</b>	<b>Posta Kodea / Código Postal</b>	<b>Lurraldea / Territorio</b>	
-	-	-	
<b>Telefonoa/k / Teléfono/s</b>	<b>Faxa / Fax</b>	<b>E-maila / E-mail</b>	<b>Web-a / Web</b>
-	-	-	-

**ADMINISTRAZIO-ORDEZKARIAREN DATUAK / DATOS DEL REPRESENTANTE ADMINISTRATIVO**

<b>Administrazio-ordezkaría</b> / Representante Administrativo		<b>I.F.Z. edo I.F.K. / N.I.F ó C.I.F.</b>	
-		-	
<b>Telefonoa/k . / Teléfono/s</b>	<b>Mugikorra / Móvil</b>	<b>E-maila / E-mail</b>	
-	-	-	
<b>Kargua / Cargo</b>			
-			

**JAKINARAZPEN DATUAK / DATOS DE NOTIFICACIÓN**

<b>Hizkuntza / Idioma:</b> <b>Euskara / Euskera</b> <input type="checkbox"/>	<b>Gaztelania / Castellano</b> <input type="checkbox"/>
<b>Jakinarazpenetarako bidea / Canal de notificación:</b> <b>Posta/ correo postal</b> <input type="checkbox"/>	<b>Internet / internet</b> <input type="checkbox"/>
<b>Oharrak jasotzeko bidea / Canal de aviso:</b>	
<b>Posta/ correo postal</b> <input type="checkbox"/>	<b>SMSa / SMS</b> <input type="checkbox"/>
<b>Biak / Ambos:</b> <input type="checkbox"/>	<b>Bat ere ez / Ninguna</b> <input type="checkbox"/>
<b>Nori jakinaraztea / Persona de notificación:</b> <b>Titularra / Titular</b> <input type="checkbox"/>	<b>Ordezkaría / Representante</b> <input type="checkbox"/>
<b>Jakinarazpenetarako lekua / Lugar de notificación:</b> <b>Titularra / Titular</b> <input type="checkbox"/>	<b>Batzuk / otros</b> <input type="checkbox"/>

**JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA / DOMICILIO DE NOTIFICACIÓN**

<b>Jakinarazpenetarako helbidea</b> / Dirección de notificación			
-			
<b>Herría / Localidad</b>	<b>Udalerría / Municipio</b>	<b>Probintzia / Provincia</b>	<b>Posta kodea / Código postal</b>
-	-	-	-
<b>Hurbilketa Postala / Aproximación Postal</b>			
-			
<b>Oharretarako datuak / Datos de aviso</b>			
<b>Mugikorra / Móvil:</b> -		<b>E-maila / E-mail:</b> -	

2016ko maiatzaren 24a, asteartea

ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK / DATOS DEL ESTABLECIMIENTO		
<b>Industria edo blezimenduaren helbidea / Domicilio del establecimiento/industria</b> -		<b>Herria / Localidad</b> -
<b>Udalerría / Municipio</b> -	<b>Posta Kodea / Código Postal</b> -	<b>Lurraldea / Territorio</b> -
<b>Hurbilketa Postala / Aproximación Postal</b> -		
<b>Izen Komertziala / Nombre comercial</b> -		

ORDEZKARI TEKNIKOAREN DATUAK / DATOS DEL REPRESENTANTE TÉCNICO	
<b>Deiturak eta izena / Apellidos y nombre</b> -	<b>Ordezkapenaren titulua / Título de representación</b> -
<b>Telefonoa/k / Teléfono/s</b> -	<b>E-maila / E-mail</b> -
<b>Oharrak / Observaciones</b> -	

ESTABLEZIMENDUKO BESTE DATU TEKNIKOEN AITORPENA DECLARACIÓN DE OTROS DATOS TÉCNICOS DEL ESTABLECIMIENTO
<p><b>1. - Egiten diren jarduerak edota egin edo komertzializatzen diren produktuak (1):</b> Actividades desarrolladas y productos que elabora o comercializa (1):</p> <p>-</p>
<p>(1) Atal honetan, establezimenduaren jarduera partikularra zehaztuko da, ez bakarrik bere gakoa, kategoria eta jarduerari dagokiona (1) En este apartado se especificará la actividad particular del establecimiento, no únicamente lo relativo a clave categoría y actividad.</p>

AKTIBITATEAREN DATUAK / DATOS DE LA ACTIVIDAD	
<b>Gakoa / Clave</b>	<b>Kategoria eta jarduera / Categoría y actividad</b>
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-

LEHENENGOZ MERKATURATU DIRELA JAKINARAZITAKO PRODUKTUAK PRODUCTOS NOTIFICADOS DE PRIMERA COMERCIALIZACIÓN
-

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA DOCUMENTACIÓN COMPLEMENTARIA PRESENTADA
<input type="checkbox"/> <b>Titularraren NAN, AIZ edo IFZ-aren kopia / Copia del DNI, NIE o NIF del titular</b>
<input type="checkbox"/> <b>EJZ-aren kopia / Copia del IAE</b>
<input type="checkbox"/> <b>Establezimenduaren eskalan egindako plano edo krokisa / Plano o croquis del establecimiento, a escala</b>



**AURKEZTUTAKO BESTE DOKUMENTAZIOA**  
**OTRA DOCUMENTACIÓN PRESENTADA** - - - -

**ARDURA-DEKLARAZIOA DECLARACIÓN RESPONSABLE****Interesdunak bere gain hartu eta adierazten du:**

*El interesado manifiesta, bajo su responsabilidad, que:*

**- Emandako datuak benetakoak direla.**

*Que son ciertos los datos consignados.*

**- Adierazi duen jardueran jarduteko, indarrean dagoen legediaren baldintzak betetzen dituela eta hori egiaztatzeko behar duen dokumentazioa duela.**

*Que cumple los requisitos establecidos en la legislación vigente para el ejercicio de la actividad declarada, y que dispone de la documentación que así lo acredita.*

**- Jarduera horretan jarduten duen bitartean, baldintza horiei eusteko konpromisoa hartzen duela.**

*Se compromete a seguir cumplimiento dichos requisitos mientras realice dicha actividad.*

**- Dokumentu honetan edo erantsitako dokumentazioan azaldukoetan edozein aldaketa sortuz gero, jakinarazteko konpromisoa hartzen duela.**

*Se compromete a notificar cualquier cambio que se produzca en lo expuesto en este documento o en la documentación adjunta.*

**- Jarduera utziz gero, jakinarazteko konpromisoa hartzen duela.**

*Se compromete a notificar el cese de actividad*

**Aurreko titularra: / Anterior titular:**

**Tokia eta eguna / Lugar y fecha**

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten zaizu inprimaki honetan jarri dituzun datu pertsonalak "Elikadura-osasunaren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko direla. Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren ardurapean dago fitxategi hori. Helburua da elikadura-osasuna kudeatzea eta osasun publikoa babestea, instalazioen baldintza higieniko-sanitarioen eta elikadura- eta ostalaritza-establezimenduen manipulazio-jardueren segimendua egitea eta baimenak ematea. Jasotako datuak beste Administrazio Publiko batzuei utzi ahal izango zaizkie (Osasun Ministerioari, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioari eta Tokiko nahiz Lurralde Administrazioei). Nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu edo aurkaratzeko eskubidea balia dezakezu. Horretarako, idatzi bat bidali beharko duzu Eusko Jaurilaritzaren Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzara (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo bestela, dagokizun Osasuneko Lurralde Ordezkaritzaren Osasun Publikoko Zuzendariordetzara: Done Jakue hiribidea, 11 - 01010 Vitoria - Gasteiz; Nafarroa hiribidea, 4 - 20013 Donostia; Recalde zumarkalea, 39 A- 48008 Bilbo.

**Izenpen / Firma**

**Izena eta deitura: -**

**NAN edo AIZ: -**

*En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le comunica que los datos personales que Vd. aporta en este impreso serán incluidos en el fichero "Gestión de sanidad alimentaria", bajo la responsabilidad de la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco. Su finalidad es la gestión de la sanidad alimentaria y protección de la salud pública, el seguimiento de las condiciones higiénico-sanitarias de las instalaciones y de las prácticas de manipulación de los establecimientos alimentarios y hosteleros y la concesión de autorizaciones. Los datos recogidos podrán cederse a otras Administraciones Públicas (Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad, Administraciones Locales y Territoriales).*

*Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo un escrito a la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco, en C/ Donostia, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz, o bien a la Subdirección de Salud Pública de la Delegación Territorial de Sanidad correspondiente, en Avda. Santiago, 11 - 01010 Vitoria - Gasteiz; Avda. Navarra, 4 - 20013 Donostia; Alameda Recalde, 39 A- 48008 Bilbao".*